

# 2023ko Martxoaren 13a Astelehena

Dokumentu honek hamabi enigma ditu. Zehazki zazpi engima hautatu behar dituzue : erantzun on batek hainbat puntu ematen ditu, enigmaren zailtasunaren arabera. Huts egiten bada, kopuru hori emaitzari kenduko zaio. Zazpi engima horietako batean, joker bat pausatuko duzue, puntuak bikoiztuko dituen.

Bilaketa on !



RÉGION  
**Nouvelle-  
Aquitaine**



Éducation  
nationale



université  
de **BORDEAUX**

**LOT-ET-GARONNE**  
Le Département

[www.lotetgaronne.fr](http://www.lotetgaronne.fr)




Département  
des Landes



**Gironde**  
LE DÉPARTEMENT  
[gironde.fr](http://gironde.fr)



**TEXAS  
INSTRUMENTS**



CAP  
SCIENCES  
Découvrons ensemble



**CASIO**




Soluzioak eta irabazleen zerrenda laster webgunean :  
[www.rallye-math-aquitaine.com](http://www.rallye-math-aquitaine.com)



### 8. enigma Romanesco (6 puntu)

Grisez margoturiko F letratik abiatuz, atzeman taula honetan gordetako 8 hizkiko hitz bat, horretarako, erabili mugimendu kodeari esker.




F	A	T	Z	I	A	U	R	S	K
Q	M	S	L	O	K	C	J	H	G
W	F	E	B	C	V	O	Z	P	U
P	M	G	H	N	K	I	S	M	P
R	H	B	N	C	R	O	A	D	A
Y	X	N	L	S	A	Z	T	O	I
Q	P	H	T	L	M	R	P	C	N
L	P	G	J	V	D	O	Y	F	E
K	Y	K	O	C	N	L	M	Z	P
N	T	A	M	B	L	N	K	L	D

□ : enigma honetako F hizki kopuruaren hamarkoitzaren erdiaren zifren batura.

○ : 2 baino handiagoa den zenbaki bakoiti txikiena, zeinaren zatitzaile kopurua bere errokarratua den.

△ : Ondoko triangeluaren azalera



◇ : Zenbaki oso baten herena, zeinaren ondoz ondoko bi zenbaki osoekin batuz, 66 lortzen den.

☺ : 10 ordenagailuk 50 kalkulu konplexu egiten dituzte 27 egunez. ☺, 15 ordenagailuk 25 kalkulu konplexu egiteko behar duen egun kopurua da.

♥ : Gaineko taulan bokal bat irakurtzeko probabilitatearen idazkera hamartarraren ehunen zifra.

☆ : Zenbaki lehenen listan, ◇○ zenbakia, zenbat garrena den erakusten duen zenbakiaren zifren batura.

### 9. enigma Bihotzeko erregina (5 puntu)




Horra jotetxe batean, Xan, Jone eta Laidaren manaketak :

Xanek fruitu jus bat, bi pizza eta izozki bat manatu ditu. 33,70 € ordaintzen du.

Jonek bi fruitu jus eta hiru pizza manatu ditu. 43,60 € ordaintzen du.

Laidak fruitu jus bat, pizza bat eta bi izozki manatu ditu. 27,30 € ordaintzen du.


Zein da fruitu jus baten prezioa ?



### 10. enigma Magellan (8 puntu)

Abuztuaren 10ean, Elorri Bonafous, euskal nabigatzaile gaztea, itsasoratzen da bere belaontzian. Argentinako kostatik abiatuak, bere GPSak koordinatu geografikoak ematen dizkio ( $40^{\circ}\text{S}$  ;  $62^{\circ}\text{O}$ ). Ekialderantz doa, paraleloa segituz. Ozeano Pazifikoan, 2 392 itsas milia egiten ditu eta uharte batean aingura botatzen du.

Itsas milia bat 1,852 km dela, eta Lurraren erradioa 6 370 km dela jakinez, aurkitu uharte horretara iristean longitudearen balioa, graduen hamarrenetaraino biribildurik.



### 11. enigma Eskailera (5 puntu)

Iratxoa helmugara iristean, zein dira bere koordinatuak, unitatera biribildurik ?

```
quand  est cliqué
  effacer tout
  aller à x: -200 y: 50
  stylo en position d'écriture
  répéter 9 fois
    s'orienter à 90
    avancer de 25
    tourner de 48 degrés
    avancer de 25
  relever le stylo
  dire OUF je suis arrivé !! pendant 2 secondes
```

### 12. enigma Aritmetor (4 puntu)

Txominek Pokémon karta anitz ditu : 250 eta 300 artean. Bere kartak banan banan banatzen ditu

Lehen banaketan, kopuru bereko hiru meta egiten ditu, eta 2 karta gelditzen zaizkio.

Hiru metetako kartak berriz hartzen ditu, gelditzen diren 2ak bazterrean utziz, eta bere bigarren banaketa hasten du : kopuru bereko lau meta egiten ditu, eta 3 karta gelditzen zaizkio.

Lau metetako kartak eta lehen banaketan gelditutako 2 kartak hartzen ditu soilik.

3. banaketa hasten du : oraingoan kopuru bereko bost meta egiten ditu.

Banaketa horren bukaeran, karta guztiak banatuak izan dira.

Zenbat karta ditu ?